

Astigarragako etorkizuneko  
kontsumitzaileen  
**erosketa- eta kontsumo-ohituren  
eta -beharren azterketa**



2025eko otsaila



1.

## Ikerketaren aurkezpena



## Helburua

Astigarragako 19 eta 44 urte bitarteko herritarren erosketa-ohituren eta beharren azterketa egitea



## Zertarako?

Astigarragako merkataritza erakargarriagoa izan dadin tresnak definitu eta neurriak hartzeko



# Zer aztertu da?

## A

### Zeharkako informazioa

Zeharkako informazio –iturriak aztertuta (EUSTAT, Udalmap), Astigarragaren ezaugarri soziodemografikoak aztertu dira eta horien azken urteetako bilakaera



## B

### Zuzeneko informazioa

Bi inkestatze-prozesu egin dira:

#### 1 Merkataritza establezimenduen inkesta

Herriko 42 establezimendu elkarrizketatu dira:



17 **elikagai establezimendu**  
14 **bestelako merkataritza**  
11 **bestelako zerbitzuak**

#### 2 Merkataritza establezimenduen inkesta

19 eta 44 urte bitarteko 300 herritar elkarrizketatu dira:




100 herritar **19-29 urte bitartekoak**  
200 herritar 30-44 urte bitartekoak

# Herriaren bilakaera


## A Biztanleria

+ Azken hogei urteetan % **89,3** hazi da Astigarragako biztanleria.



## B Etxebizitzak


+ 2010 eta 2023 artean etxebizitza-kopuruak % **72,3** egin du gora.



# Herriaren bilakaera


## C Errenta pertsonala

- + Errenta pertsonalak **nabarmen egin du gora** 2009 eta 2022 artean, eta gehiago, **emakumezkoen** kasuan.
- + Astigarragako 2022ko errenta pertsonala **altuagoa zen Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino.**



## D Merkataritza establezimenduak

- + 2009 eta 2024 artean **13 merkataritza-establezimendu galdu** ditu Astigarragak.



# 2.

## Astigarragako merkataritza




## Jabego-erregimena

- + Astigarragako merkatarien % **52k alokairuan** du negozioaren lokala.
  - **Negoioak zaharragoak** diren kasuetan, gehiago dira jabetzan dutenak.
  - Erdialdeko establezimenduetan ere gehiago dira jabetzen dutenak.


## Antzintasuna

- + Astigarragako establezimenduek **12,9 urte** dituzte batez beste .



## Azalera

- + Astigarragako establezimenduek **64,4 m<sup>2</sup>** dituzte batez beste .



# Arduradunen perfila


Establezimenduetako arduradunek **48 urte** dituzte batez beste



Establezimenduetako arduradunek **11,5 urte** daramatzate funtzio horretan batez beste






Euskara-gaitasuna




# Langileak

Guztira **99 pertsonak** egiten dute lan Astigarragako establezimenduetan



## Bezeroen adina



**% 18**  
25 urte edo gutxiago

**% 36**  
41-64 urte artean

**% 27**  
25-40 urte artean

**% 20**  
65 urte edo gehiago

## Bezeroen jatorria




**% 58**  
Auzoan bizi direnak

**% 20**  
Astigarragatik kanpokoak

**% 22**  
Astigarragako beste auzoetakoak

# Salmenten banaketa urtean zehar



## Arduradunen euskara-gaitasuna

- + Establezimenduetako arduradunen % **88 euskaraz ulertzeko gai da.**
  - % 12 ez da ulertzeko edo hitz egiteko gai.
  - Bestelako zerbitzuetan eta Urumea Berriko establezimenduetan bermatuago dago euskarazko arreta.

## Hizkuntza-paisaia

- + **la hamar establezimendutatik zortzitan kanpoko errotulazioa euskara hutsean (% 43) edo ele bitan (% 36) dago.**
- + **Barneko hizkuntza-paisaian gaztelaniak presentzia handiago du: % 5 euskara hutsean dago eta % 76 ele bitan.**

# 3.

## 19-44 urte bitarteko herritarrak



## Gazteen jatorria eta bizitokia

+ Inkestatutakoen % **69** beste udalerrri batean bizi zen Astigarragan bizi aurretik.



% 58 Donostia

% 9 Hernani

% 5 Atzerria

% 28 Besterik

+ Inkestatutakoen % **55** Arrobitxulo-Aiotzategi auzoan bizi da.


## Amaitutako ikasketak

+ Inkestatutakoen % **71k** goi-mailako ikasketak ditu.

## Jarduera nagusia


+ Inkestatutakoen % **70ek** Astigarragatik kanpo egiten du lan.

# Euskara-gaitasuna




**% 86k** ondo edo nahiko ondo hitz egiten du euskaraz

+ **Astigarragan bizitzen zenbat eta urte gutxiago eraman, orduan eta apalagoa da euskara-gaitasuna eta altuagoa erdaldunen proportzioa.**




# Euskararen erabilera establezimenduetan



**% 26k** euskara hutsean  
**% 39k** euskaraz gehiago

+ **Ezagutzarekin bezala, euskararen erabilera ere aldeak daude betidanik bizi direnen eta etorritakoen artean**



# 4.

## Kontsumo-ohitura nagusiak



## Astigarragan ZER erosten da?



## Astigarragan NON erosten da?

1



Freskoak ez diren  
elikagaiak



Supermerkatuak

Herritar gazteen  
**% 75<sub>ek</sub>**  
erosten dituzte

2



Elikagai freskoak



Supermerkatuak

Herritar gazteen  
**% 67<sub>k</sub>**  
erosten dituzte

3



Bestelako produktu  
komertzialak



Herriko dendetan

Herritar gazteen  
**% 54<sub>k</sub>**  
erosten dituzte

# Zer **BALORATZEN** da Astigarragan erostean?



- » **Bezeroei eskainitako tratua eta arreta**
- » **Euskara erabiltzeko aukera**
- » **Zabaltzeko eta ixteko ordutegia**
- » **Produktuen kalitatea**
- » **Saltokien hurbiltasun fisikoa**

## Astigarragatik kanpo ZER erosten da?

1



Arropa eta oinetakoak



Merkataritza-guneetako dendak

Herritar gazteen  
**% 67<sub>k</sub>**  
erosten dituzte

Donostia  
% 87,1

2



Bestelako produktu komertzialak



Denda txikietan

Herritar gazteen  
**% 58<sub>k</sub>**  
erosten dituzte

Donostia  
% 77,7

3



Freskoak ez diren elikagaiak



Hipermerkatuak

Herritar gazteen  
**% 55<sub>ek</sub>**  
erosten dituzte

Hernani    Donostia    Oiartzun  
% 35,3    % 29,2    % 22,9



## Astigarragatik kanpo NON erosten da?

## Zer **BALORATZEN** da Astigarragatik kanpo erostean?



- » **Denda eta produktuen aukera zabala** % **73**
- » **Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak** % **38**
- » **Erosotasuna (desplazamendua, aparkamendua)** % **29**
- » **Denbora librearekin eta aisialdiarekin uztartzeko aukera** % **18**
- » **Produktuen kalitatea** % **5**

## Internet bidez ZER erosten da?



1



Arropa eta oinetakoak



Herritar gazteen

**% 75**<sub>ek</sub>

erosten dituzte

2



Etxetresnak eta  
teknologia



Herritar gazteen

**% 62**<sub>k</sub>

erosten dituzte

3



Altzariak, burdindegia  
eta etxerako  
produktuak



Herritar gazteen

**% 50**<sub>ek</sub>


erosten dituzte

# Zer **BALORATZEN** da internet bidez erostean?



- » **Denda eta produktuen aukera zabala** % **60**
- » **Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak** % **51**
- » **Desplazatu gabe erosteko aukera** % **26**
- » **Edozein egun eta orduetan erosteko aukera** % **12**
- » **Produktuak etxean jasotzeko aukera** % **3**

# Kontsumitzaile gazteen merkataritza-gastu potentziala



+ **Astigarragan:** gastuaren % 36 egiten da herrian.


% 96  
Janaria

# 5.

## Zerbitzuen eskaintza eta eskaera




# Ze zerbitzu eskaintzen ditu Astigarragako merkataritzak?



Web orri propioaren bidezko salmenta elektronikoa % 50,0

Instagram bidezko salmenta % 37,5

WhatsApp bidezko salmenta % 25,0



# Eta zein hobekuntza- eta formakuntza-behar dituzte?

## Negozioa hobetzeko:

- + Sare sozialetan aktiboagoa izatea **% 36**
- + Erreforma-lanen bat egitea **% 21**
- + Online denda jartzea **% 7**

## Formakuntza-beharra:

- + Bezeroak fidelizatzeko tresnak **% 38**
- + **Komunikazio digitala** **% 31**
- + Negozioaren kudeaketa **% 26**
- + Bezeroen arreta **% 24**

# Nola baloratzen dituzte zerbitzuak kontsumitzaileek?



## Ondoen baloratzen diren zerbitzuak edo alderdiak:

- |   |     |
|---|-----|
| + Bezeroari eskainitako tratua eta arreta | 8,6 |
| + Euskara erabiltzeko ematen duten aukera | 8,3 |
| + Zabaltzeko eta ixteko ordutegia         | 8,0 |



## Okerren baloratzen diren zerbitzuak edo alderdiak:

- |   |     |
|---|-----|
| + Denda eta produktuen aniztasuna eta barietatea  | 5,8 |
| + Eskaintzaren komunikazioa (web, sare sozial...) | 6,1 |
| + Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak     | 6,3 |

## Merkataritzari eskaerak:

- + Komunikazioa hobetu
- + Denden itxura eta eskaintzen dituzten zerbitzuak berritu
- + Bertako produktuak eta kalitatezkoak eskaini
- + Ordu-tegiak hobetu
- + Euskarazko arreta sustatu
- + Prezioak jaitsi



## Udalari eskaerak:

- + Eskaintza areagotu
- + Aparkalekuak hobetu
- + Merkataritza sustatu
- + Deskontu-bonuen kanpaina indartu
- + Euskarazko arreta sustatu



*“Beraien eskaintza herritarrengana helarazteko medio gehiago. Ez daki askotan, behar duena herrian saltzen den ala ez”*

*“Bezero potentzialetara heltzeko kanalak indartu, publizitatea, internet, sareak...”*

*“Más calidad, en mi zona donde yo vivo no la hay, en el centro hay más calidad en los productos”*

*“Eguerdian ez ixtea. Erraztasunak erosketak jasotzeko. Arraindegi bat auzo honetan”*

*“Ordu-tegi zabalagoak, kanpoan lan egiten dutenek oso zaila bertan erostea”*

*“Denda guztiak euskara egiteko aukera ematea. Prezio konpetitiboagoak. Eskaintza handiagoa”*

*“Euskararekiko begirune handiagoa”*

*“Actualizar los establecimientos”*

*“Orokorrean denden itxura pixka bat gehiago zaindu behar da, batez ere lehendikan esistitzen direnak”*

*“Prezioak jaitsi, baina ez dago beraien esku”*


# 6.

## Astiko Elkartea





## Astiko Elkarteaz merkatariek duten ezagutza-maila




- Gutxiago ezagutzen da **elikagai-establezimenduetan**.
- Ezezagunagoa da **Urumea Berriko** establezimenduetan.
- Gehiago ezagutzen dute **bestelako zerbitzuek** eta **bestelako merkataritzak**.
- Ezagunagoa da **Erdialdeko** establezimenduetan.

## Astiko Elkartearen balorazioa

- + Astiko Elkarteko bazkideen % **80k** elkartearen lanaren balorazio ona edo oso ona egiten du.
- + Bazkide ez izateko arrazoi nagusiak **elkartea ez ezagutzea** (% 46) eta **inplikatzeko denbora falta** (% 36) dira.



## Astiko Elkarteaz herritar gazteek duten ezagutza-maila



- Gehiago ezagutzen dute **emakumezkoek** eta Astigarragan **denbora gehiago** bizitzen daramatenek.

## Astiko Elkarteak antolatzen dituen ekintzen erakargarritasuna

- + Herritar gazteen % **71k** ekintzak oso edo nahiko erakargarriak direla adierazi du.

**Eskerrik asko**

